



BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur eguneko errealitatea da gazteek beraien heziketa sexuala batez ere pornografiatik jasotzen dutela. Glaukomaren abestiak dioten bezala “pornografia izan da gure heziketa sexuala”.

Euskal Herrian, gazteen ehuneko portzentaia oso altu batek kontsumitzen du pornografia maiz. Datuen arabera, gazteak oso adin txikiarekin hasten dira hura kontsumitzen, eta hori arriskutsua izan daiteke ondoren beraien harremanetan eragin dezakeelako eta ez dakitelako desberdintzen errealitatea fikzioarekin. Hurrengo galdetegiaren arabera, %37ak uste du pornografiak eragina duela bere harreman sexualetan, adibidez. Hori dela eta, ezinbestekoa ikusten dugu heziketa sexuala iturri fidagarrietatik jasotzea eta horregatik gaude prest gure laguntza eskaintzeko.



¿Cómo llegan los jóvenes a la pornografía?



Fuente: Red Jóvenes e Inclusión Social y Universitat de Illes Balears

europapress.es

Gure taldeak zerbitzu bat eskaintzen du gazteek izan ahal dituzten duda sexualak argitzeko. Horretarako tresna desberdinak erabiliko ditugu:

- e-learning plataforma bat erabiliko dugu: bertan bezeroek dituzten zalantzen inguruko foro bat sortuko dugu, anonimoa, lasai idatz ditzaten beraien kezkek eta zalantzak; horrez gain guri buruz informazioa ere eskegita egongo da, gure zerbitzuak kontratatzeko etabar. Hitzaldien inguruko informazioa ere egongo da -nolako hitzaldi motak eskaintzen ditugun, nola dauden bideratuta...-. Ikasle guztiak plataforma baterako sarbidea izangondute dohan, beraien hezkuntza zentruak ordainduko baitu zerbitzua.
- Aurrez-aurreko hitzaldiak fisikoak eskainiko ditugu ikastetxeetan. Orientazio sexualaren, genero identitatearen edota sexua izateko momentuan sortzen diren zalantzen inguruan izango da hizketaldia gehienbat. Baina horrez gain

beste gai batzuk ere jorratuko ditugu, heziketa sexual berdinzalea adibidez.

Beraz, gure lehiakideengandik modu kualitatiboan desberdindu gara batez ere.

Esaterako, lehiakideengatik bereizten gaituena gehienbat **anonimatoa** da, foruetan hizketan egiterakoan, edo gure profesionalei galdera bat egiterakoan, beraien identitatea anonimoa izango delako, anonimatoak segurtasun eta konfiantza gehiago ematen duelako, ez dugulako beldurrik epaituak izateko (desberdintasun kualitatiboa); baina baita beste gauza batzuk ere:

Arriskuak murrizten ditugu, gazteek sexuaren inguruan duten zalantzak askotan arriskutsuak izaten direlako, sexuaren bidez gaixotasunak transmititu ahal direlako edo planeatu gabeko haurdunaldiak egon ahal direlako adibidez.

Bezeroentzat plataforma erabiltzea **dohainik** izango da (desberdintasun kuantitaboa), instituzioek edo ikastetxeek finantziatuko baitute gure proiektua, gure zerbitzuak kontratatzearen bidez.

Plataforma erabiltzeko **erraza eta eroso**a izango da, diseinu atsegina eta bisuala izango baitu. Bertan gure zerbitzuak kontratatu ahalko dira eta gure psikologo/sexologoek egindako bideoak eskegiko ditugu, ikasleek izan ditzaketen zalantza orokorrenak argitzeko. Horrez gain, sexuaren inguruko informazio baliagarria ere egongo da.

Azkenik, **eskuragarria** da, gure bezeroak sartu ahal direlako, edozein momentutan eta edozein lekutatik, galderak egiteko edo informazioa bilatzeko.